

# FACEnetwork 2026

EUROPAKO GAZTANDEGI ARTISAUEN BILKURA

## BABESLE EDO LAGUNTZAILE AUKERAK

Urriaren **19tik 21era**, Europako gazta eta esneki zaleak Euskadira etorriko dira FACEnetwork Bilkuran parte hartzera (Farmhouse and Artisan Cheese & Dairy Producers European Network).

Aurtengo gaia **gazta eta esneki teknologia** izango da, **#Basque Dairy: Tradition Inspiring Innovation** lelopean.

FACEnetwork elkartearen 2026ko Urteko Bilkurak 200 profesional inguru bilduko ditu gure ESNEKI ZENTROAN, Europako hainbat herrialdetatik etorriak eta baita Estatukoak ere. Gaztagile artisauak, afinatzaileak, banatzaileak, sektoreko eragileak, ikerlariak eta gaztaren munduko adituak batuko dituen topagune paregabea izango da.

**ENTITATE LAGUNTZAILE** edo **BABESLE** gisa parte hartzera gonbidatzen zaitugu, zure marka ikusgarritasun profesional handiko eta espezializazio maila altuko espazio batean kokatzeko.

## ZERGATIK IZAN LAGUNTZAILE EDO BABESLE?

- Gaztagile artisau eta Europako gaztandegietara zuzeneko sarbidea.
- Banatzaile, komertzial eta preskriptore kualifikatuengana heltzeko aukera.
- Produktuak, makineria, irtenbide teknikoak edo zerbitzu espezializatuak aurkezteko aukera.
- Europako gaztagintza artisauaren sektorean erreferente den kongresu batean ikusgarritasuna.
- Europako Gazta Buffet-ean parte hartzea, networking egiteko topaketa eskusiboan.



## Lankidetza eta babesletza paketeak

Bi maila diseinatu ditugu, erakunde edo enpresa bakoitzak bere helburuetara hobekien egokitzen den presentzia aukera dezan.

### ENTITATE BABESLEA

Kongresuaren komunikazioan markaren presentzia handiagoa eta paper nabarmena nahi duten enpresentzat pentsatua.

- Stand handiagoa (3 x 2 m arte) lehentasunezko kokalekuarekin.
- 4 sarrera Jardunaldi Teknikorako (bazkaria barne).
- *Europako Gazta Buffet*-erako gonbidapenak.
- Logotipoa Kongresuko komunikazio euskarri guztietan: webgunea, programa, seinaletika, akreditazioak eta pantaila nagusiak.
- Ahozko aipamena irekiera eta itxiera ekitaldietan.
- Ongietorri-poltsan sustapen-materiala sartzeko aukera.
- Ekitaldiko programa osoan parte hartzeko aukera

*Nori zuzendua?* ikusgarritasun handia, presentzia korporatibo indartua eta programan parte-hartze aktiboa nahi duten enpresak.

**PREZIOA: 5.000 euro**



### ENTITATE LAGUNTZAILEA

Oinarriko ikusgarritasuna eta Jardunaldi Teknikoko erakusketa-eremuan presentzia fisikoa bilatzen duten enpresentzat.

- 2x2 metroko standa erakusketa-eremuan.
- 2 sarrera Jardunaldi Teknikorako (bazkaria barne).
- Logotipoa Jardunaldi Teknikoaren komunikazio euskarrietan.
- Bideo promozionala emititzeko aukera hitzaldien arteko atsedenaldietan.

*Nori zuzendua?* Inbertsio handirik egin gabe bilkuran egon nahi duten eta sektorearekin konektatu nahi duten enpresa edota erakundeentzat.

**PREZIOA: 1.500 euro**



Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jarri harremanetan:

**Malen Sarasua** | [msarasua@leartiker.com](mailto:msarasua@leartiker.com)



## BATU ZAITEZ

Babesle edo lankidetza prozesua abiatzeko, bete jarraian aurkituko duzun estekan dagoen inprimakia.

Informazio gehiago eta ordainketa-datuak, inprimaki hau bete bezain pronto jasoko dituzu.

[Sartu inprimakira](#)



### ESNEKI ZENTROA

Malen Sarasua

msarasua@leartiker.com

946 169 167

<https://esnekizentroa.eus>

**Farmhouse and**

**Artisan**

**Cheese & Dairy Producers**

**European Network**

